

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 271/2019 Foru Agindua, urriaren 15koa, Guardiako La Hoya parajea, 22. eremuko 460. lurzatian bodega bat ezartzeko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa ematekoa

Erreferentziako Plan Bereziaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du.

Prozedura horren barruan, 2019ko apirilaren 4an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak, Plan Bereziaren aurrerapen dokumentua eta ingurumen agiri estrategikoa jaso ditu Guardiako Udalarengandik. Agiri estrategiko hori, "Guardiako 22. eremuko 460B lurzatian bodega bat ezartzeko plan bereziari" buruzkoa da, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, ingurumen ebaluaziokoaren, bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, martxoaren 28an kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko urriaren 7an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/88 espedientea).

1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen motza. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Plan bereziaren xedea da Guardian dagoen La Hoya parajea bodega bat ezartzeko baldintza orokorrak ezartzea. Guardiako 22. eremuko 460 lurzatiari buruz ari gara, 32.425,93 m² azalera osoa duena, eta hiribilduko hirigune historikoaren iparraldetik 1.200 m-ra kokatuta dagoena. Bodega +592 kotara heltzea aurreikusita dago. Zuzenean sartzeko bide asfaltatua dago ibilgailuetarako, "Los Molineros" landa bidetik, Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan 031-000-11 kodea duena. Hartuko duen lurzatiaren hegoaldean kokatuta dago.

Sustatzaileak ustiapen horrekin lotuta dagoen 12,0272 Ha-ko mahastia du udalerrri hauetan: Guardia, Bilar, Navaridas, Samaniego eta Eskuernaga.

Esparrua, Guardiako arau subsidiarioen arabera, "lurzoru urbanizaezina" da, hirigintzari begira, "nekazaritza intereseko babes lurzoruko lurzoru urbanizaezinaren" kalifikazio xehatuarekin.

Hartzen duen lurzatiak ez du hartune elektriko edo ur hartuneko inolako oinarrizko zerbitzurik (hornidura edo saneamendua). Hala ere, esparrutik hurbil, edateko ura banatzeko sareak, elektrizitatea, telekomunikazioak eta hondakin uren saneamendu sarea daude. "Oinarrizko proiektuak" egoki ebatziko du ur, saneamendu eta elektrizitate horniduraren diseinu eta tamaina zehatza.

Bodegaren gorputzak hiru nabe atxikita izango ditu, bi isurkiko estalkiarekin. Eraikinaren lursail perimetralean dagoen kota mantenduko da, mendebaldeko fatxadari izan ezik. Hor, 1,20 eta 1,70 m artean murriztuko da kota hori, bodega eta biltegia sartzeko, erdisotoko solairuan daudenak.

Solairuarte bat sartzea aurreikusita dago, bisitarien harrera-lekua jartzeko, eta administrazio-eremu txiki bat, bulego eta bilera areto gisa erabiltzeko.

Eraikin berriak eremu hauek izango ditu: mahatsa egiteko eta hartzeko eremua, hazteko eremua, botilatze eremua, biltegia, aldagelak, instalazio lekua, txoko edo piknikgune, bulegoa eta bilera aretoa, harrera gela, dastaketa aretoa eta komunak.

Zolatutako kanpoko eremurako bideratutako azalera murrizteko eta lurzatiaren zatirik handiena aldatu gabe mantentzeko helburuarekin, lurzatiarako sarbideetik hurbilen dagoen eremuan jarriko da bodega, mugakidea den landa eremutik, hegoaldean.

Sustatzaileak aurkeztutako agirien arabera, eraikuntzak "itxura zaindua izango du eta paisaia egoki integratuko da." Horrez gain, zerrenda berde bat ere sortu nahi da lurzatiaren aurrealdean, zuhaitzak sartzeko.

Proposatutako eraikinaren azalera eraiki osoa 1.937,35 m² da, Arabako Errioxako LZPn definitzen den hirigintza arautegiak ezarritako mugak errespetatuz.

Guztira, autoak aparkatzeko hamabi plaza, eta autobuserako plaza bat aurreikusita daude.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Plan bereziaren jarduera esparrua "Hoya" parajearen dago, Guardiako hirigunetik 1.200 m ingurura, iparraldean. Horrela, iparraldetik, 459 lurzatiak mugatzen du, hegoaldean, Los Molineros landa bideak, ekialdean, 456, 461, 462, 1064 eta 467 lurzatiak eta mendebaldean, Hoya erreka. Eremu hori, gaur egun, mahastirako erabiltzen da iparraldean (A azpilurzatia), eta hegoaldean ez da erabiltzen (bodega jarri nahi den B azpilurzatia). Ez dago eraikinik haien barruan. Hurbil dagoen eremuan zenbait eraikin sakabanatuta daude, bodega gisa erabiltzeko.



Plan bereziaren esparrua 460 lurzatia da (A eta B azpilurzatiak), berdez nabarmenduta dagoena.

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan azaltzen denez, hiru aukera hartu dira kontuan:

— "0" aukera, edo ez jardutekoa (ez dute aukeratu): ekimena ez gauzatzea eta sustatzailearen beharrei ez erantzutea ekarriko luke.

– “1” aukera (ez dute aukeratu): Guardiako indarreko arau subsidiarioek “hiri lurzoru edo industria erabilerako lurzoru urbanizagarri” gisa sailkatutako lurzoruan plan bereziak babestutako ekimena gauzatzearen ondorioz sortuko litzateke. Eremu funtzionalean nekazaritza eraikuntzak eta bodegak arautzeko Guardiako (Arabako Errioxa) LZPren lehen aldaketaren artikuluetan gomendatutako aukera bada ere, aztertuko dugun kasuan ez dago aplikatzerik. Sustatzaileak azaldu duenez, Guardiak ez du upeltegietarako erabilera xehatuko lurzorurik, beraz, udalerriko ekonomia jardueren lurzoruetan dauden beste instalazioen artean ezarri beharko litzateke ekimena, gaur egun jadanik oso beteta dauden eremuetan, edo hirigunetik urrunegi daudenetan (Casablanca ind.), edo oraindik garatu gabeetan (33. industrialdea). Egin nahi den moduko bodega bat zaila izango litzateke toki horietara egokitzea.

– “2” aukera (aukeratutakoa): bodega ezartzeko, Guardiako indarreko arau subsidiarioetan “urbanizaezin” gisa sailkatutako lurzoruan kokatuta dagoen lurzati bat eskuratzeko aukera jasotzen zuen, bideragarritasuna kontuan hartuz, aplikatzeko hirigintza eta sektore arautegiaren arabera. 2. AUKERAK jasotzen duen lurzatiak Guardiako 22. industrialdeko 460a da, guztira 32.425,93 m²-ko azalera duena. Aukera hau hautatu zuten irisgarritasun ona duelako, oinarriko zerbitzuak berehala izango dituelako erabilgarri eta natura landaretzarik ez dagoelako. Dokumentu honetan hain zuzen ere aukera hori aztertzen da.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko 28an eman zion hasiera Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eragiten zaien administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, prozedura arautuari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Guardiako Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/88 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: “Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan.” Era berean, hauxe dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- URA – Uraren Agentziak lehenengo txostena prestatu eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokituz joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoarekin bat etorrituz.

URAK bigarren txosten bat egin zuen, eta Hoya ibaiaren ezkerreko erribera babesteko eta hobetzeko neurrien barruan aurreikusitako landatzea, 460 lurzati osotik hedatzea iradoki zuen, zabalera txikiagoa hartu arren (3 metro).

Baliabide nahikotasunari eta erabilgarritasunari dagokienez, eskaera berriak asetzeko, aroko erakundeak (CHE) dagokion erabakian ezarritakoari jarraituko zaio. Halaber, Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren adostasun txosten bat ere beharko da, proposatutako lotura egin daitekeela egiaztatzen duena.

Azkenik, saneamenduari dagokionez, aipatutako Partzuergoak, hondakin uren tratamendua berma daitekeela justifikatu beharko du. Horrez gain, egiten den eraikuntza proiektuak dauden zerbitzuen sareetara lotzeko urbanizazio osagarria teknikoki definitu beharko du, haren balioespen ekonomikoa zehaztuz, eta informazio kartografikoa barne hartuz.

- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak txosten bat egin zuen, maiatzaren 9ko 6/2019 Lege berria, euskal kultura ondareari buruzkoa, kontuan hartuz, eta alderdi hauek nabarmendu zituen:

Plan bereziak barne hartzen duen lurzatiak kultura ondasunen inguruaren barruan dago, La Hoya barruti arkeologiko gisa izendatutakoa, eta maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen, euskara kultura ondarekoaren, lehen xedapen gehigarriaren arabera, babes bereziko kultura ondasuntzat hartzen da. Bestalde, Lege horretan, babes maila horretarako ezarritako araubidea aplikatzen zaio.

Guardiako arau subsidiarioek “Kultura, arkitektura eta arkeologia ondareari atxikitako lurzoru urbanizaezin” gisa hartzen dute La Hoya arkeologia barrutiaren mugaketa. Ezarri nahi den bodega, barruti horren barruan dagoenez, eragin negatiboa izango du. Aipatzen dute, Guardiako arau subsidiarioak behin betiko onartzearen ondorioz, Foru Aginduak (8. ALHAO, 2003/01/22) ez zuela onartu industria erabilerarako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea Guardiako iparraldean dagoen azaleraren hedadura handi bat (“37. eremua, Guardiako industria lurzoru berria”), hain zuzen ere La Hoya barruti arkeologiko horren barruan egoteagatik.

La Hoya barruti arkeologikoaren babesa gainjartzen da, izan ere, eragindako lurzatiak Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturalaren barruan dago, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren bidez deklaraturakoa. Horren bidez, kultura ondasuntzat hartzen da, monumentu multzoaren kategoriarekin.

6/2019 Legearen 49. artikulua ezartzen du, kultura ondasunen inguruak xede instrumentala duela, ondasuna integratzen den paisaia mantentzeko helburuarekin. Kasu honetan, Kultur Ondarearen Zuzendaritzak azaldu du plan bereziaren xede den lurzatiak inguruaren barruan dagoela, eta, beraz, La Hoya herrixkaren paisaiaren barruan, Legeak babestu behar dela ezartzen duena.

Halaber, paisaiaren kultura balioak kontuan hartzeko, irailaren 18ko 134/2018 Dekretuak, Guardiako eremu funtzionalaren LZPren 2. aldaketa behin betiko onartzen duenak (Arabako Errioxa), kultura ondarearen kudeaketari buruzko zehazpenen artean, hauxe adierazten du: “2. Kultura ondare hori eta bere ingurua nabarmentzea, bere testuinguruan ulertu ahal izateko”.

Beren ustez, ingurumen agiriak ez ditu zehazten industria lurzoruak, gaur egun, zergatik ez dituen betetzen irailaren 28ko 251/2010 Dekretuak, Guardiako (Arabako Errioxa) eremu funtzionalaren LZPren 1. aldaketa behin betiko onartzen duenak, eskatutako baldintzak. Horrez gain, bitxia bada ere, diote ingurumen agiriak, bodega jarri nahi den lurzatiaren paisaia balioak nabarmentzen dituela (asko ikusten da eta paisaia ahultasun ertain-altua), besteak beste kultura garrantzi handiko eremu batetik oso hurbil dagoelako. Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzaren ustez, hartzen duen lurzati gisa kanpoan utzi beharko lukete balio horiek.

Adierazten dute, egindako zundaketa arkeologikoetan hondar arkeologikorik ez aurkitzeak ez duela ekartzen bodega ezar daitekeenik, 134/2018 Dekretuaren arabera, La Hoya aztarnategiaren inguruko paisaia testuingurua babestu eta nabarmendu behar delako.

Paisaian balio handia duen inguru horretan beste bodega bat jartzearen ondorioz, kultura ondarearen ingurua, bisualki, pixkanaka gehiago narriatuko dela diote. Beren ustez, horrek, nahi ez den ondorioa ekarriko du, izan ere, Guardiako hirigune historikoaren iparraldeko sektorean, bodega handiak ezartzeko eskaera gehiago egingo dira. Horrenbestez, pixkanakako "kolonizazio" horrek, antolatu gabeko hiri erdiperiferia bat sortzen ari da lurzoru urbanizaezinean, Kultura Ondareari atxikita dagoena. Egoera hori, kultura ondarearen babesaren ikuspegitik, ez da oso desiragarria.

Ohartarazten dute ekimenak eragin negatiboak izan ditzakeela baliabide estetikoetan, Los Molineros bidea bodegetarako ardatz erreferente bihurtuko delako.

Laburbilduz, Plan Berezi honek, aitortutako eta 6/2019 Legeak babestutako kultura ondarearen balioetarako, epe ertain eta luzera oso eragin negatiboa izango duela uste dute, izan ere, hirigintza plangintzan kultura ondareari atxikita egoteagatik babestutako lurzoru urbanizaezinean beste ezarpen batzuk egitea ekar lezake.

- Arabako Museoa eta Arkeologia Zerbitzuak, Euskal Kultura Ondareko 6/2019 Lege berria onartuta (93 EHAO, 2019/05/20koa), "La Hoya barruti arkeologikoa" babes bereziko ondasuntzat hartzen dela dio, eta ez duela babes araubide berezirik. Beraz, aipatutako Legearen 37. eta 38.3. artikuluen arabera, "esku hartze zientifikoak eta ondasunak zaintzeko eta nabarmentzeko esku hartzeak bakarrik uzten dira." Horrez gain, dagokion lurzatian Lege beraren 49. artikulua izango luke eragina. Artikulu horrek, kultura ondarearen inguruko babesa ezartzen du, "eremuak eta haren barruan dauden elementuek osatutakoa, hurbil egon edo ez, haien aldaketak ondasunaren kultura balioetan eta nabarmentzean eragin badezake". Azaldutakoan oinarrituz, Museoa eta Arkeologia Zerbitzuak dio indarreko legediak ez duela uzten bodega lurzati horretan ezartzea.

- Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Zuzendaritzak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txosten bat helarazi du, eta hor, Plan Bereziaren bidez garatuko den esparruan, bere balio historiko eta kulturalak babestutako elementu edo higiezinik ez dagoela adierazten da. Halaber, ez da ikusten, 89/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahatsen kultura paisaia, monumentu multzoaren kategoriarakin, kultura ondasun gisa kalifikatzen duena aplikatzean, kontuan hartu beharko litzatekeen terrazatzerik edo landaketa bankurik.

- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat egin du, eta hor, EAEko nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialak, plan bereziak eragindako lurzoruak, balio estrategiko handiko lurzorutzat hartzen duela nabarmentzen du. Beraz, nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa aplikatu behar da. Protokolo hori, bidalitako txostenaren eranskin gisa bidali da. "Kontuan izanik nekazaritza arloko eragina ebaluatzeko protokoloaren emaitza, eta mahastizaintza enpresa batek sustatzen duela eraikuntza, eta hura bere jarduerarako baliatuko duela, iritzi zaio ezen plan bereziak eragin onuragarria izango duela nekazaritza ekoizpen primarioan eta, batez ere, Arabako Errioxako mahastizaintzan".

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren inguruan egindako txostena helarazi du. Hor, aipatutako Dekretuan babes araubidea jasotzen den txabolarik, etxetxorik, mahasti-zaintzarik, terrazatzerik ez landaketa bankurik.

• Eusko Jaurlaritzako Ondare Natural eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak emandako txostenean, plan bereziaren laburpena egin ondoren zenbait gogoeta jaso ziren:

– Ezinbestekotzat hartzen du ingurumen agiria aztertzea, paisaia duen gero eta eragin handiagoaren azterlana eginez, 600 m-ko kotaren inguruan dauden bodega guztiak kontuan hartuz.


– Ebaluazio esparruari dagokionez, baldintza bat jartzea garrantzitsua dela dio, hau da, Plan Berezia, ingurumen ebaluazio orokorra egiten bada bakarrik garatuko dela, eta mahastizaintzako eta ardogintzako ustiapenarekin lotuta dauden lurzati guztiak barne hartuko dituela. Berezi, Plan Bereziaren esparrutik kanpo, baina bodegarekin lotzen diren lurzatiaren barruan, Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak, 6229* kodea dutenak (Gramineoen eremu azpiestepikoak eta *Thero-Brachypodietea* espeziearen urtekoak), babesteari buruz ari da, Samaniego 2. industrialdeko 645. lurzatian eta Eskuernagako 1. industrialdeko 435. lurzatian identifikatutakoak.

3. Eragina jaso lezaketen elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak.

Esparruaren azalera osoa 32.425,93 m² da Guardiako 22. industrialdeko 460 lurzatian. Esparruaren multzoa nekazaritzakoa da nagusiki, eta Guardiako hirigunetik hurbil dago, mahastiz eta bodeguz inguratuta.

Jardueraren eraginik handienak paisaia, La Hoya barruti arkeologikoan (katalogatutako kultura ondarearen gaineko eragina), La Hoya errekan eta nekazaritza lurzoruan gertatuko lirateke.

Bodegaren ezartzeak nabarmen eragingo luke esparruko landa paisaia, eta beste eraikuntza bat sartuko luke lurzoru urbanizaezin batean, hiru bodegetatik metro gutxi batzuetara (Bodegas Ysios, Bodegas Javier San Pedro eta Bodegas Ruiz de Viñaspre). Ondorio horietarako, ingurumen agiriak eraginak ez dituela nahikoa baloratu uste da, izan ere, lurzatiaren paisaiaren berritzea bakarrik aztertzen du, eta ez du egiten ezinbestekoa da paisaiaren gaineko gero eta handiagoa den eraginaren azterlana, inguru horretatik hurbil jadanik dauden bodega guztiak kontuan hartzen dituen.



La Hoya barruti arkeologikoaren gaineko eraginari dagokionez, kultura arloan eskumena duten sailek, hots, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak, babes bereziko kultura ondasuntzat hartzen dute, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Lege berriaren arabera. Zehazki, "Aurretiko kontsulten" atalean azaldu denez, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak, Arabako Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren bidez, Plan Berezia hartzen duen lurzatiak, Lege beraren 49. artikulua eragingo lukeela adierazten du. Lege horrek, kultura ondasunaren inguruaren babesa ezartzen du, "eremuak eta haren barruan dauden elementuek osatutakoa, hurbil egon edo ez, haien aldaketak ondasunaren kultura balioetan eta nabarmentzean eragin badezake". Horrenbestez, aipatutako Zerbitzuak, indarreko legediak, lehen aipatutako lurzatian bodega ez duela ezartzen uzten ondorioztatzen du.

Bestalde, Plan Bereziko eremua azpiegiturretatik aldamenean dagoenez, ez da obra konplexurik behar oinarritzko elektrizitate, saneamendu eta hornidura zerbitzuak konektatzeko. Hala ere, ingurumen ondorioak gerta litezke La Hoya errekan, interes bereziko ibai ibilgua dena, Kantauriar mendikatea eta Ebro ibaia lotzen dituen. Hala ere, Ingurumen Agiri Estrategikoan jasotako ingurumen integrazioko neurriak ezarri ondoren plan bereziak erreka horretan sortuko lituzkeen ingurumen ondorioak arindu egingo lirateke.

Azkenik, nekazaritza lurzoruaren okupazioa mugatua da, eta Nekazaritza Zuzendaritzak bateragarritzat hartu du. Onargarria den jarduketa denez, edonola ere berreskuratu egin beharko dira gainazaleko aukera organikoak horiek berriz ere erabiltzeko, hondatutako eremuetan edo inguruan dauden laborantza lurzoruak hobetze aldera.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzatzaileak.

Lehendabizi, adierazi behar da euskal kultura ondareari buruzko 6/2019 Legearen 3.3.b. artikulua arabera, foru erakundeei dagokiela, dagozkien lurralde historikoetan, "Babestutako kultura ondasunen gaineko esku hartzeak baimentzea, Lege honetan ezarritakoaren arabera". Txosten honetan azaldutakoan oinarrituz, Arabako Museo eta Arkeologia Zerbitzuak dio "indarreko legediak ez duela uzten bodega lurzati horretan ezartzea". Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari dagokionez, La Hoya barruti arkeologikoan esku hartzeak baimentzeko eskumena duena, aldeko irizpenik eman ezean, ez dago Plan berezia onartzerik.

Ingurumen ebaluazioarekin lotutako gainerako alderdiak kontuan hartuz, ingurumen agiri estrategikoan, 11. atalean (70-77 or.), ingurumenean edozein eragin negatibo prebenitzeko, murrizteko eta ahal den neurrian zuzentzeko, aurreikusitako neurriak, oro har, egokiak direla uste da, eta horrenbestez, plan bereziaren hirigintza agiriak barne hartu beharko dituela. Era berean, Ingurumen Agiri Estrategikoko 12. ataleko 78-79 orrialdeetan jasotako plan bereziaren ingurumen jarraipenerako aurreikusitako neurriak gehitu beharko dira (78-79. or.).

Horrez gain, Hirigintza Agiri batean kontuan hartu beharko dira honako neurri babesle eta zuzentzaileak aplikatu daitezken:

- Paisaia integratzeko jarduerak egingo dira esparruan, eta zuhaitzak landatuko dira, bodegaren eraikina eta urbanizatuko diren eremuen (sarbideak, aparkalekuak eta abar) paisaia egoki integratzeko eta hobetzeko. Lehentasuna izango dute Planaren esparruan egon daitezkeen landatzeak (*Quercus ilex subsp. rotundifolia*), eta Arabako Errioxako eskualdearen baldintza klimatiko eta edafikoetara egokিতa dauden landa espezieek.

- Sustatzaileak, esparru honen beste bodega bat ezartzeak paisaian dituen eraginak aztertu beharko ditu, handik hurbil beste hiru bodega ere badaudela kontuan hartuz.

- Plan berezia behin betiko onartu aurretik, agiri bat, edo egokia bada, aldaketa bat, aurkeztu beharko zaio ingurumen organoari. Hor, paisaia integratzeko egin beharreko jarduerak deskribatzeaz gain, zuhaitzak landatzeko jardueren obra unitateak ere zehaztuko dira, ingurumen baldintza honen 1. puntuaren eskatutakoak. Halaber, agiri honetan, esparru honetan beste bodega bat ezartzeak dituen eraginak ere aztertuko dira.

- Aurreikusitako landaketari dagokionez, La Hoya ibaiaren ezker aldeko erribera babesteko eta hobetzeko neurrien zati gisa, 460. lurzati osoan egingo da, gaur egun, mahastiak hartzen duen iparraldeko zatia ere barne hartuz. Zer espezie landatuko dira, zer esparrutan eta zer luzera eta zabalera izango duten ingurumen agiri estrategikoan adieraziko dira.

- Bodegak eta sarbideek eta aparkalekuek okupatuko duten lurrari dagozkion horizonte edafikoak aukeraketa eginez kenduko dira eta egokia izango da berehala horiek banatzea eta biltzea, ahal bada plan bereziaren eremuari atxikitako lursail batean. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Obrak eragindako eremuetan landaretza lehengoratzeko eta lurzorua berripintzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare lurra, eta/edo finka edo mendi mugakideetako lurzorua hobetzeko.

- Sustatzaileak eta Foru Aldundi honen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen jarraipena egingo dute bodegaren eraikina eraikitzen eta esparrua urbanizatzen den fasean. Horrela, ingurumena lehengoratzeko aplikatutako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan diren ala ez jakin eta ebaluatuko dute, hala badagokio, aurki daitezkeen hutsuneak zuzenduko dituzte. Horri dagokionez, jarduketak hasi baino lehen, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete direla egiaztatzeko.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehena. "Guardian (Araba), La Hoya parajea, 22. eremuko 460. lurzatian, bodega bat ezartzeko plan bereziaren" ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 15a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA